



## Urola Garaiko enpresok eta lantegiok Euskaraldiarekin bat

Badator Euskaraldia, badator milaka euskaldun martxan jarriko dituen ariketa sozial erraldoi eta itxaropentsua. Hilabete besterik ez zaigu falta, eta beste askok bezala, guk, Urola Garaiko enpresok eta lantegiok, bat egin nahi dugu Euskaraldia ekimenarekin.

Gure eskualdeko herrietan (Ezkion, Legazpin, Urretxun eta Zumarragan), duela hilabete asko hasi ziren lanean ehunka herritar Euskaraldia prestatzen. Berez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean izango da, baina aspalditik ari da jendea prestakizunetan, motorrak berotzen, dena ondo irteteko, eta guk ere bat egin nahi dugu ehunka lagun horiekin, guk ere bultzatu eta babestu egin nahi dugu Euskaraldia gure enpresetan eta tailerretan.

Horrela, hemen gure atxikipena adierazi nahi diogu Euskaraldiari, adierazi nahi dugu bat egiten dugula ekimenarekin, konpromisoa hartu dugu Euskaraldiaren berri emateko gure langileei, bezeroei eta hornitzaileei, eta, horretaz gain, guztiak gonbidatu nahi ditugu ekimenarekin bat egin dezaten, bakoitzak ahal duen neurrian; hemen gauden enpresok eta lantegiok lantokietan Euskaraldia bultzatuko dugu eta erraztasunak emango ditugu aurrera egin dezan, gure lantokietan euskararen erabilera areagotzeko, eta dei egiten diegu guztiei nahi izanez gero belarriprest- edo ahobizi-papera hartzeko. Bakoitzak bere errealitate berezi eta bakarretik, baina guztiok egin dezakegu aurrera, guztiok bultzatu eta har dezakegu parte Euskaraldian. Gure ustez, Euskaraldia aukera ona izango da euskararen erabileran saltoa edo aurrerapausoa emateko, euskara gehiago erabiltzeko; aukera ona izango da euskaraz gehiago egiteko eta erabiltzeko gure herrietan, kaleetan, kiroldegietan, lagunartean, familietan, eskoletan...; aukera ona izango da hizkuntza-ohitura batzuk aldatzeko, zailtasun batzuk gainditzeko...; aukera ona izango da ariketa kolektibo hau, eta horixe adierazi nahi dugu hemen: gure konpromisoa Euskaraldia bultzatzeko eta gauzatzeko.

Horrekin batera, dei egin nahi diegu gainerako enpresa eta lantegiei, Euskaraldiarekin bat egin eta bultza dezaten, eta horretarako atera dugu argazki hau.

Urola Garaiko Lanbide Eskola, 2018ko urriaren 25a